

# Denbora eta espazioa

2. ZIKLOAN



# Aitzin solasa

*Denbora eta espazioa* izeneko fitxa bilduma honekin *Munduaren ezagutza* saila abiatzen dugu, hurrengo bi urteetan beste bi bilduma jalgiko baititugu : astronomiaz lehenik eta inguramenaz ondotik.

Bereziki bigarren zikloari dagozkion jakintasunak lantzen badira ere, proposatzen dugun ikasmateriala beti lehen zikloan eginean bermatzen da eta iraganbidea egiten du hirugarrenarekin.

Jakintasun nagusiek haurrak denboran eta espazioan kokatzeko tresnen bereganatzea dute helburu :

- denborari dagozkion sei modulotan (eguna, astea, hilabetea, urtea, iragan hurbila eta iragan urruna), iragan edo etorkizun hurbiletik urrunagokora, denboraldi labur eta luzeagoen antolamendua, izan dadin egutegiaren bidez, nortasunaren eraikitze ere balios izanen den zuhaitz genealogikoa edo beihalako eta oraiko argazkien konparaketa dela medio ;
- espazioari dagozkion moduloan, inguramen ezagunaren irudikapen sinpleetatik eremu arrotzarena egiteraino.

Hizkuntza gaitasunak lant daitezke modulo guzietan : hiztegiak bestalde, leku eta denborari dagozkion kasu gramatikalak (adizlagun, aditzondo, deklinabide kasu...), ikaslea ongi erabiltzera doan \*edun eta izan aditz laguntzaileak, aditzaren tempusa ere nasaiki hunkitzen dela.

Haurrak hurbil dituen erreferentziak ditugu abiapuntu emaiten, ahal bezainbat, erran nahi baitu inguramen hurbiletik hasiz. Gainera, bada zer alha euskal kulturaren alorrean eta bide nabar, hiztegiaren aberasteko parada ona iragan urrunari dagozkion moduloan : etxea, eskola, merkatua, saltegiak, jantziak, garraioa, bestak, lanbideak, osasuna, elikadura, jokoa eta paisaia. Abantxu ehun argazki eskaintzen ditugu, duela mende bat hartuak zenbait, beste anitz oraikoak....

*Munduaren ezagutza* saileko beste bi bildumen egiteko ere, asmo berarekin ari gara. Astronomiaren lantzeko, elkarlanean ari gara Angeluko Société d'astronomie populaire de la Côte basque elkartearekin eta inguramenari buruz, Urketako MIFEN elkartearekin (Maison d'initiation à la faune et aux espaces naturels). Jakitateak partekatuz emendatzen baizik ez dira !

# Bilduma hau nola erabil ?

## **Bilduma bi liburukiz osatua da :**

- Lehenen, irakaslearendako gida emaiten dugu, zazpi modulotan zatitua : eguna, astea, hilabetea, urtea, iragan hurbila, iragan urruna eta espazioa, beti egitura berarekin : kontzeptuen definizioa, urratsak, aktibitateak, ebaluaketa (idatziz edo ahoz) eta jakintasunen bilduma.

- Bigarren liburukian, ikasleen fitxak ditugu emaiten. Diren bezala erabiltzeko prest daude, fotokopia eginez, ikasle bakoitzak berea ukan dezan. Zubereraz ere moldatuak izan dira, Jean-Louis Davant euskaltzainari esker. Irakasleek eskuragai izanen dituzte IKASen berean edo IKASen webgunearen bidez : [ikas.org](http://ikas.org)

Bi liburukiak parrez-par ezarriz, irakasleak ikaslearen fitxa eta irakaslearen gidako azalpenak denbora berean ukan ditzake begien aitzinean.

Bilduma hau, hiru sareetako irakasle multzo baten laguntzarekin sortu dugu. Ustiapena artoski apailatua izanik ere, beti hobetzen edo osatzen ahal da. Beste argitalpenen kariatara egin genuen gisan, aldi honetan ere gomitatzen zaitugu, irakurlea, zure oharren eta proposamenen helaraztera.

## Aurkibidea

Eguna .....	3
Astea .....	11
Hilabetea .....	21
Urtea .....	33
Iragan hurbila .....	45
Iragan urruna .....	57
Espazioa .....	73